

## **ZERBITZU EMAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK**

Donostiako Tranbia Konpainia SA

Domeinua: [www.dbus.eus](http://www.dbus.eus).

IFZ: A20003737

Helbidea: Fernando Sasiain kalea, 7. 20015-Donostia

Telefonoa: +34 943 000 222

Posta elektronikoa lehiaketaren ondorioetarako: [marketing@dbus.eus](mailto:marketing@dbus.eus)

### **Antolatzailea:**

- Dbus
- Olatu Talka

### **Laguntzaileak:**

- Fnac
- La Perla Talaso Sport

## **GYMKHANAREN DINAMIKA**

Gymkhana maiatzaren 20an egingo da, ostirala, gutxi gorabehera 18:00etatik 20:00etara.

### **1. Abiapuntua**

Gymkhana Bulebarretik abiatuko da, kioskoaren ondotik. Leku horretan parte hartzaileak erregistratuko dira eta Gymkhana egiteko beharrezkoa den materiala emango da.

### **2. Argibideak eta pasaporteak**

Abiatzeko lekuan lehen argibidea emango da, ibilbidearen 1. puntuaren gainean. Puntu horretara heltzeko, parte hartzaileek asmatu beharko dute zer leku den eta hara heltzeko erabilgarri dauden lineak erabili beharko dituzte.

Leku horretara heldu ondoren, Dbuseko laguntzaile batek zigilua jarriko die pasaporteak, lekura heldu diren frogak gisa. Han daudela, hurrengo argibidea emango diete, eta horrela, hurrenez hurren, helmugaraino heldu arte.

### **3. Helmugara heltzea**

Helmugara heldu eta gero, egiaztatu egingo da pasaporteak ibilbidearen puntu guztiei dagozkien zigiluak dituela eta bidaiatzeko txartela begiratu zaie, ziurtatzeko Dbuseko lineak erabili direla.

## **GYMKHANAREN OINARRIAK**

### **1. Parte hartzaileak**

Parte hartu ahal izango dute 12 urtetik beherako pertsona guztiek, bai eta 12 urtetik beherakoek ere, baina azken hauekin batera pertsona heldu bat joan beharko da. Pertsona heldu batek gehienez ere 12 urtetik beherako 2 adingabe lagundu ditzake.

### **2. Izena ematea**

Derrigorrezkoa izango da izena ematea, eta horretarako [marketing@dbus.eus](mailto:marketing@dbus.eus) posta helbidera informazio hau bidaliko da:

- Izena ematen duen pertsonaren izena eta abizena
- Posta elektronikoa
- Harremanetarako telefonoa
- 12 urtetik beherakoa bada, berarekin batera joango den helduaren harremanetarako telefonoa.
- Taldean parte hartuz gero, parte hartzaileen kopurua. Taldean inskripzio bat baino ez da onartuko.

\*Erreserbarako emandako datuak Donostiako Tranbia Konpainiaren fitxategi batean sartuko dira Datu Pertsonalen Babeserako Legearen arabera tratatuak izateko. Informazio gehiagorako, kontsultatu Erabilera Baldintzak izeneko atala.

Izena emateko epea 2016ko maiatzaren 4an hasiko da, 11:00etan, eta 2016ko maiatzaren 17an bukatu, 00:00etan. Gehienez ere 60 parte hartzaile onartuko dira. Parte hartzaile gehiago egonez gero, zozketa egingo da. Zozketaren emaitza izena eman dutenei jakinaraziko zaie pertsonalki Gymkhana baino bi egun lehenago.

### **3. Sariak**

Hiru sari ezarri dira Gymkhanarako, helmugara iristeko hurrenkeraren arabera lehenetik hirugarrenera heltzen direnentzat. Sariak helmugan entregatuko dira, Gymkhana amaitzean. Helmugara pertsona edo talde bat baino gehiago batera heltzen badira, igarkizun jokoa egingo da haien artean erabakitzeke nor den lehen irabazlea, bigarrena eta hirugarrena.

- 1. Saria: 200€-ko txartel bat Fnacerako eta Fnaceko bazkide txartela doan.
- 2. Saria: La Perla Talasoterapia zentrorako 10 saioko bono bat (bakarka edo taldeka erabiltzeko) eta Fnaceko bazkide txartela doan.
- 3. Saria: Dreambox esperientzien sorpresa kutxa bat edo antzeko zerbeit.

## **OHARRAK**

Eguraldi txarra edo antolatzaileek justifikatuzat jotzen duten beste edozein arrazoia dela eta ekitaldia bertan behera uzten bada beste egun bat ezarriko da ekitaldia egiteko. Izena eman duten pertsonen jakinaraziko zaie eta jardueran parte hartzeko orduan lehentasuna izango dute. Lehiaketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla, eta epaimahaiak hartutako erabakiekin ados daudela, apelaezinak izango baitira. Antolatzaileen esku egongo da erregelamendu honetan jasota ez dauden intzidentzien ebazpena.